

HIRU FAVORITOAK



RICARDO MAZALAN / AP

GOBERNU IREKIA. Bere lehen eginkizuna Gobernuaren oposizioari irekitzea izango dela adierazi du Toledo.



JAIMÉ RAZURI / EFE

GARDENTASUNA. Ustelkeria eten eta Gobernu «gardena eta irekia» bultzatuko du Lourdes Floresek.



MARTIN MEJIA / AP

KONPROMISOAK. Peru «solidarioa, handia eta duinagoa» egiteko hamar konpromiso aurkeztu ditu Garciak.

ALEJANDRO TOLEDO (PERU POSIBLE)

Hirugarren aldiz lehendakari

Hautagai faborito nagusia da. Bere hazpegi andinoengatik Txolo ezizenez da ezaguna, eta Cabana hiriko familia pobre batean jaio zen. Lehendakari izateko hautakundeetara 1995ean aurkeztu zen lehenengo aldiz. Orduan botoen %3,3 eskuratu zituen, Code-Pais Possible alderditik. 55 urteko ekonomista, 2000an itzuli zen berriro politikara, Peru Posible alderdiaren pean. Fujimoriaren atzetik gelditu zen, oso gertu. Hautakundeetan irregulartasunak salatu zituen. Bigarren itzulia egitekoa zenean, bere hautagai zerrenda erretiratu zuen, lehiakideak zikin jokatu zuela salatuz.

ko dute. 1990eko uztailaren 28an hartu zuen agintea. Handik bi urtera 'autokolpea' izenez ezagutzen den estatu kolpea eman zuen, Indar Armatuaren babesarekin botere guztia bere gain hartuz. Bere agintaldian Sendero Luminoso eta MRTA Tupac Amaru Mugimendu Iraultzailea taldeak desegiteagatik izan da ezaguna.

Ekonomia arloan, %7,649ko inflazioa zegoen agintea hartu zuenean. Urteekin jaitea lortu zuen baina 1997tik Peru atzeraldi batean sartuta dago. Langabezia eta pobrezia handitu egin dira ondorioz. Estatistiken arabera, perutarren %50 pobreak dira eta %15 pobrezia larrian daude. Montesinosen eskandaluek galgatu egin zuten ekono-

miaren susperraldia. Hautakundeak igaro arte atzeraldiak jarraituko duela diote adituek.

Kanpaina irainen artean

Nazioarteko behatzaileen ustez, hautagaien artean irainak eta jarraitzaileen artean eraso fisikoak nagusitu dira hautakunde kanpainen zehar. Horren ondorioz, zokoan gelditu dira

Gobernu programak. Bi hautagai bakarrak izan dute eztabaida publikoa: Flores eta Garciak. Toledo baztertu egin ditu behin eta berriz bere lehiakideak eztabaidarako egindako gonbidapenak.

Gainera, hautagaiak ez dira ustelkeria kasuetatik urrun egon. Lourdes Floren kasuan, bere alderdiko bi kide

agertzen dira Montesinosekin bideo batean. Toledo kalte gutxienean jaso du, Peru Posible bere alderdia eta Paniagua presidentearen alderdiaren aliantzari esker. Bideoak bultzatzea egotzi diote Paniaguari, Toledo mesederako. Agustín Mantilla, Alan Garciaren gertuko pertsona ere eroskeria kasuetan sartuta egon zen.

LOURDES FLORES (BATASUN NAZIONALA)

Peru zuzenduko lukeen lehenengo emakumea

Peruko lehen emakumezko presidentea izango litzateke gaurko bozak irabaziko balitu. 41 urteko abokatuak, bizitza profesionala eta jarduera politikoa batera eramandu ditu. Fernando Belaunde (1980-1985) Gobernuaren zegoela estreinatu zen Flores politikan, Justizia ministroaren aholkulari gisa. Zinegotzia, diputatua eta kongresukidea izan zen ondoren. Fujimoriaren erregimaren kontra azaldu da eta Montesinosen bideoak salatu zituen lehenengoetakoa da. Ideologikoki «sozial-kristaua, zentro erreformistakoa» definitu da eta bere erreferentzia Espainian du, PP alderdian.

ALAN GARCIA (PERUKO ALDERDI APRISTA)

Ustelkeriagatik auzipetu duten lehendakari ohia

Liman jaio zen duela 52 urte. Zuzenbidean lizentziatu eta Soziologia ikasketak egin zituen. Lehen aldiz 1985ean izendatu zuten lehendakari. Herritarrek presidente gaztearengan jarri zituzten itxaropen guztiak. Baina, ekonomia arloan balantzea guztiz txarra izan zen: %7,600ko inflazioarekin utzi zuen agintea. 1991n, Kongresuak Garciaren kontrako salaketak jarri zituen ustelkeria kasuengatik. Auzitegi Gorenak delituak preskribitu zituen, baina Fiskaltzak helegitea aurkeztu zuen. Bitartean, Kolonbian eta Frantzian errefuxiatu zen. Perura itzuli eta hautagai bihurtu da.

azken besta!

apirilaren 8an Baionarat **korrika**

Egunkaria